



ARGIAren inbasioa beste hedabideetan



Itsaso Zubiria Etxebarria
@itsasozubiria

Espioitza lanik eraginkorrenak barrutik egiten omen dira. Bestearen triapak ondo ezagutu, ahalik eta informazio gehien jasotzeko; hori izaten da helburua. Alderantzizkoa egiten duenik ere badago, ordea, eta gurean perretxikoak bezala ateratzen direla dirudi. Noiz ikusi da komunikabide batek bere informazioa beste komunikabide batean zabaltzea? Ez al da hobe bakoitzak bere bidea egitea? Bakoitzak bere kazetariekin bere informazioa landu eta bere komunikabidea sendotzea? Nik ARGIAko lagunei ere galdera horietan bota dizkiet, eta bueltan etorri zait betiko diskurtsoa: kolaborazioa, hedabideen arteko elkarlana, komunitatearen indarra, gure edukia jendarteratzeko beste aukera bat, gaiak gure baloreetatik lantzeko... Azkenean sinetsi egin beharko diet!

Total, errepasoa egiten hasi garela erredakzioko zenbat kidek kolaboratzen duten beste medioetan, eta konturatu garela ia denek dutela beren gloria unetxo batean edo bestean. Batzuk irratiara jo dute: Euskal Irratietan Goiz Berri saioan astero entzun daitezke

ARGIAren asteko azala komentatzen; besteren bat Xorroxin irratiari aritzen da asteko bospasei gai potoloenez; Euskalerrria irratiari ere uste dut gure kideren batek parteren bat edo beste baduela Reyes Ilintxetaren (hori ere ARGIAko kolaboratzailea, portzietan) eta Pello Argiñaren saioetan; Euskadi Irratiko *Faktoria* saioan asteartaren batean topatu dut ARGIAko bat; Info7 irratiari ere gurean badu tiroia, eta batetik Nekane Zinkunegik gidatutako *Zerabidea* saioan eta bestetik *Kalegorrian* emanaldian ere tertuliakide orojakile paperean baditugu ARGIAkide batzuk sartuta; eta ahaztu gabe Bilbo Hiria eta Halabedik elkarlanean osatutako *Hizpidea* eta Bizkaia irratiari *Goizeko Izarretan* saioetan dauzkagun satorrak ere.

Idatzizko kolaborazioen bat ere detektatuta daukagu *Goianan*, *Directan* eta *Diagonalen*.

Eta horrez gain, badira gutxi batzuk kamera aurrera salto egin dutenak. Horiek ETB1eko *Ahoz Aho* saioan eta 11amaika Telebistan ikusi ditut. ■



Argia Eguneko bideoa eta argazki galeria ikusgai argia.eus-en

Lander Arregik eginiko bideoak biltzen ditu harpidedunen adierazpenak. Dani Blancoren argazkitan gogoratu ahaliko ditugu ekintzen une gorenak. Biak erraz aurkituko dituzu www.argia.eus/argia-eguna helbidean.

Eskerrak ezker-eskuin

Ondarroako festan modu batera edo bestera lagundu genuenok, dagozkigun eskerrak jaso ditzakegu internet bidez, *Argiaren Barrenak* blogeko *Argia Eguna egin zenuten saregileei, mila esker!* artikuluan.

eta hurrengoa non?

Aurtengo Argia Eguna agurtzerako airean da galdera. Proposamenik bai? harpidetza@argia.eus helbidean oso gustura hartuko ditugu hurrengo Argia Eguna zein herritan egin eta zergatik azaltzen duten mezuak. Edo errazago bazaizu, deitu (0034) 943 371 545 zenbakira.

ARGIA IRRATIETAN

- **Euskal Irratiak:**
Astelehenetan, 8:00ean.
- **Info7 Irratia:**
Asteazkenetan, 16:15ean.
- **Euskalerrria Irratia:**
Asteartetan, 14:15ean.
- **Bilbo Hiria Irratia:**
Ostiralean, 10:30ean.
- **Xorroxin Irratia:**
Asteartetan, 18:00ean.